

ezagutzen al
duzu Donostia?

Kaltetxe

Kaltetxe edo
Atetzarreta
baserria Amara
behean.



Kaltetxe Amarako baserri bat da, Martuteneko Erriberatik mendebaldera dago, Buztin-Errekatik hurbil, bizkar leun baten gainean. Kaltetxe, izena baino gehiago, izengoitia da; bere izen dokumentatua, izan ere, Atezarreta baita. 1862. urtean Lorenzo Alzate idazkariak egin zituen etxe-zerrendetan «Atezarreta ó Calte-eche» azaltzen da Amarako distrituan. Inguru honetako esames herriko batek dio etxe honetatik pasatzen zen maizter bakoitzak kalteren bat egiten ziola etxeari. Urumea ibarreko zaharrendik Kaltetxeri buruzko honako esaera jaso nuen: «ez badu balio arrazoiak nik mugituko ditut xagu eta arratoiak». Eta honela su eman omen zion etxe honi bertan bizi zen maizterrak. Lehenago ere esana daukat Donostiako baserrietan ia guztiak maizterrak zirela (%95a); eta

harremanak gogorrak izan ohi ziren etxeen jabeekin, benetako «casero»ekin, alegia. Baserritarrek hauei ordaintzen zieten errenta Santo Tomas egunez, abenduaren 21ean. Txirritak oso bertso zorrotzak bota zituen harreman latz hauen inguruan. Hona hemen Antonio Zabalaren «Txirritaren Bertsoak» liburutik hartutako Nagusia eta Maizterraren bertsoak:

«Oraiñ artian ni izandu naiz
aitona zure nagusi,
errenta txintxo pagatu dezu
bere kapoi eta guzi;
zu baño gizon umillaguak
ez ditut asko ikusi;
oraiñ etxea saltzera guaz,
nai bazenduke erosi»

«Larogei duro zuben errenta
etxiak oraiñ artian,
zedorrek ala pagatu dezu
berrogei ta amar urtian;
lenguan bertan gelditutzia
ezta neretzat kaltian,
bost milla duro baliyo ditu

ia konpondu gaitian»

«Zer familia izandu degun,
jauna, nai al ditu aditu?
Amabi aurren aita naiz ni ta
semiak amar baditu;
lan egiteko iñor gutxi ta
mayian ezin kabitu,
baneukake non enpleatua
bost milla duro banitu»

«Au aditu ta beste aldera
buelatatu zan nagusiya,
esanaz: nik zer kulpa dadukat
zuk ume asko aziya?
Ez dezu asko ixtimatzen nik
egin dizuten graziya;
zuek artu nai ez badezute
bada zeñek erosiya»

«Eskerrik asko, nagusi jauna,
pakian biagu bizi,
baña izketan bukatu arte
ez bedi juañ igesi;
klaro dabillen gizonak eztu
arrazoi txarrik merezi;
nai dubenari saldu bezaio,
guk ezkentzake erosi»

JOSU TELLABIDE

ARGAZKIA: FERMIN LEIZAOLA

La Casa del Café

- Juan Iriondo S.A. -
DONOSTIA

